



Otsailaren 20an 5 urte beteko dira euskal kulturaren bilgune nagusia zen eta den Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Egunkariaren aurkako erasoak eduki propioa zuen, euskararen aldeko eta kulturgintzaren topagune sozialerako ereduaren aurka zuzenean jotzen zuelako. Une honetan, itxierak irekitako eraso finkatzera dator epaiketa, fiskalak akusazioa erretiratuta ere, Espainiako auzitegi nazionalaren aurrera eramango baitituzte Egunkaria auziko auzipetuak.

Eta orain 5 urte egin bezala, orain ere Euskal Herriak erantzun beharra du. Epaietaren aurrean perspektiba propioaz aritzea da funtsezkoena. Ez gaitezen mugatu auziperatuekiko elkartasuna adierazi eta epaietaren salaketa egitera. Bilaka dezagun epaiketa euskarazko komunikabideen aldeko indar soziala berrindartzeko aukera. [Euskarazko komunikabideak Aurrera](http://www.youtube.com/v/ey9MKiBuqOM) ! alt="" swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/ey9MKiBuqOM','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p\_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});

Esan bezala otsailaren 20an beteko dira 5 urte. Eta otsailaren 20a erantzunaren abiapuntu izan dadin nahi dugu: Egunkariaren itxieraren aurka egiteko eta euskal komunikabideen aldeko mezua zabaltzeko baliatu nahi dugu zoritxarreko urteurrena.

Helburu horrekin, herriz herri, Egunkaria libre! lemapean ekimen desberdinak planteatuko dira, eta dei egiten dizuegu gurekin batera mobilizazio egun hau bultzatzen parte har dezazuen.

**HARREMANETARAKO:**

Telefonoak: 943 300 600 / 697 99 11 98

herriak@egunkaria.info